

Patxi Ezkiagaren *ZAURIEN SALMOAK*

Joxe ERTZIBENGOA OTAEGI

Zaurien Salmoak Patxik eskaintzen digun liburu berri, sakon eta berezi honek duen esanahi eta edukia, berak "giza sufrimendu eta esperantzarena" deitu XII. salmoaren hasieran ematen zaigu aditzera. Honela dio: "Ene Jainkoa, ene Jainkoa, zergatik utzi nauzu?" Laburbilduz, asko laburbiltzea bada ere, esaldi mingarri horrek erakusten digu zein izan den egileak poema-salmo haue-tan ageri-agerian utzi nahi izan digun barre-barrean daraman arazo edo kezka pertsonala. Bestela esanda, hementxe aurki dezakezue olerkariak bere-berea duen bizitza ikusteko molde eta era berezia, dohan eta lotsarik gabe emanda. Jakina, poeta-gizakiaren jarrera hau batzuei axola gutxikoa gerta dakiekeen arren, berez, ezbairik gabe, eskertzekoa da, nire iritziz behintzat zintzotasuna eta bere buruarekiko leialtasuna adierazten dituelako.

1. Izenaren zergatia

Zaurien Salmoak behin eta berriro irakurri ditudan arren eta barneko mamia zer-nolakoa den antzeman diodan arren, berak, beste inork baino hobeto, bi hitzon giltza argitu beharko liguke.

Guztiok, seguraski, ezagutuzen duzuen "Elizen arteko Biblia" izena duen liburukoteko Salmoak liburuska poetikoari dagokion sarrreran hauxe esaten zaigu: "Otoitzean ageri ditu batik bat gizakiak Jainkoarekin dituen harremanak. Negar, damu, eskerron, erregu, harridura, aitopen...: Jainkoaren aurrean giza bihotzari darizkion hainbat sentipen. Sentipenok jaulkitzeko hitzaren dohaina duenak otoitza poesi bihurtzen du. Eta poemari doinua ezarriz, otoitza kantu. Otoitz, poema eta kantu: horra zer ditugun Salmoak. Salmo hitzak horixe esan

nahi du: soinuz eta kantuz egiteko otoitza.” (“Elizen arteko Biblia”. Salmoak. 795 orr.) Beraz, azalpen honetako ezaugarrietan aurkitu beharko genituzke, biltzen hastekotan, Patxik liburuari emandako izenaren arrazoi sakonak. Dena den, ni *Zaurien Salmoak* idazlan honek arestian aipatu ezaugarriok ez dituela bere osotasunean betetzen iritzikoa naiz. Oker banabil egileak berak zuzen nazala, baina nire ustez, era bereziz, irakurtzeko eginak izan dira. Beharbada, izpiritu ausarta eta adimen irekia dutenek eta aje zaharrekin loturik ez daudenek otoitz egiteko, hots, kristauek deitu Jainkoarekin harremanetan jartzeko, erabiliko dituzte. Kantatu, ezin dira kantatu. Nik dakidalarik behintzat, VI.ak ez beste guztiek ez baitute musikarik. Baina hori alde batera utzita, uste dut eliz gizon-emakume puritano batek baino gehiagok, irakurtzen ausartzen bada, esango duela “Zaurien Samoak” idazlaneko orrietan dauden otoitz-salmoak, salmoak baino gehiago beste zernahi gauza direla, edota zerbait izatekotan, salmo heterodoxoak-edo direla. Nire iduriz bederen, puritanoen mundu horretako ilarak osatzen ez dugun asko eta askorentzat balekoak dira erabat, bai irakurtzeko bai otoitz egiteko, hots, barne sentipenak Goikoari zuzentzeko eta baita ahal izanez gero kantatzeko. Patxik poesia otoitz bihurtu du kasu honetan.

2. *Zaurien Salmoak* hauen edukia

Hau da gaingiroki ukitu nahi dudana. Hortaz, zeintzuk dira poema-otoitz hauetan aditzera ematen diren funtsezko gaiak?

Lehen-lehenik, ni-a da

Begien bistan dago. Ez dago dudarik. Ego hori, erabat pertsonala den ego hori alegia, hitzaren, bizipenaren eta gogoetaren jaun eta jabe dugu. Gizakia, izen-deiturak dituen gizakia erreala da, gauzatua dagoena, egoera ezberdinak bizi izan dituen eta, beraz, hezur-haragizkoa, zehatz eta subjetiboa. Berak bideratzen du barne-muina. Bitartekaririk gabe. Biluzik dago. “... gero eta biluziago aurkitzen naiz...,” esaten du LXXXVII. salmoan. Harriduraz, damuz, eskerronez, erreguz eta aitorpenez lepo dagoen ni-a dugu hemen olerkaria, salmo-egilea, otoitz egiten diharduena. Delako ni hori ez da etsipenean hondorata dagoena; ez da jarrera estatiko eta mugigaitzerako egina, ez. Gehiago da. Bada maite duenaren aginduetara dagoen morroia. Bada, era berean, galdetzailea eta eskatzailea, galdera eta eskaera bakoitzean era eta mota guztietako arazoez kezkatuaz azaltzen dena. Aldi berean ere bada bizitzaren iraganean, orainean eta geroan bere ni-aren zentzua, patua eta esanahia jakin nahi duena. Ni eragile hori sinestuna da:

"... agian, agian, sinestun egin nauzunez nahiago duzu ezer eza-gutu beharrean izan dezadan atearen bestaldeko zerbaiten es-
perantza...," esaten digu XXIX. salmoan. Inoiz edo behin ni hori nostalgiko-puntuu batekin ere azaltzen zaigu: "Antzina dozena-
ka artzain zegoen tokian ordea zenbait nostalgiko besterik ez gara gelditu, Jauna...," gogo-
razten digu liburuaren amaieran ia, XCVI. salmoan. Halaber, hone-
taz ziurtasun handiegirik eman ez dezakedan arren, oraingo hone-
tan ni mistiko samar baten au-
rrean gaudela iruditzen zait."Zu-
rekin bat egin naiz. Ai! Desioak izan behar bizitzaren egiatasun mistikoa!" diosku LXXVI.ean, eta ia antzeratsu LXXXI.ean honako hau: "... eta ni zure leraz zo-
ratzen..., eta ni zure irrikaz zo-
ratzen..., eta ni zure grinaz zo-
ratzen... beilariak egunalba itxaron duen bezala, adoleszen-
teak lehen ezpain irekiak amesten dituen bezala, bakardadeak urra-
tuko duen labaina nahi duen be-
zala." Bestalde, goiti-behiti erabat biluzik agertzen zaigun ni-a dugu. Den bezalakoa agertzen zaigu, naturak taxutu duen beza-
la, izakera-aldaketarik gabe, hel-
dutasun progresiboaren ildotik bi-
luzik, konplexurik gabe, eskale gisa eta laguntza eske biluzik, gi-
zaki dudakor, eta, bidenabar, egiaren aurrean ebazkor. Esaten ari naizen adierazle argia LX. sal-
moa da: "Inuzentziaren tunika

urraturik dagoenez ez dut desio beste jantzirik, haurren kantak tristeziari bezala ihes egingo dizut dardaraz, biluzik."

Poema-otoitz hauetako ni ho-
rrek, arestian aipatu ezaugarriez gain, badu beste bat oso berezia: bakartia izanik ere, bidaiaria da. Berezko bizitzan zehar etengabe dabilena da; berea den psikologia-
ren esparru zabalean ausarki ha-
rat-honat mugitzen da; bizitzaren beraren arazoez -existentziaz, ira-
ganaz, orainaz, geroaz, heriotzaz, amodioaz, utopiaz, izuaz, zeregi-
naz, amets infinitoaz, eta abar-
sarri askotan arduratuta eta kezkatuta aurkitzen da. Honantz eta harantz egiten dituen bidaie-
tan, literatura munduaren iru-
diak, sentipen sakon eta hausko-
rrak, bidea argitzeko diren izpiak, barne ezagutzaren kezka larriak, bere buruari eginiko galdera-
erantzunak ..., ispilu batean beza-
la ikusten ditu eta haietarantz jotzen du, gero, bidean ia akitu-
rik, abiapuntura itzultzeko, abia-
puntu hori bera baino ez delarik

Hala ere -hau liburuaren egi-
tura osorik hartuta nire iritzirako gauza oso bitxia da, ia salbuespe-
na esango nuke- ni berezko eta bakarti horretatik irten egiten du eta, kurioski, liburuaren amaiera aldean egiten du irteera hori, eta izaki kolektibo bat ere gogoetagai du. Dozena erdi bat salmo beste-
rik ez dira. Hona hemen, adibide gisa: "... gau isileko extasiaren apaiz biluziak zaretenok...,"

XCVII. salmoan diona, edo "... zein bihotzek entzungo du gure ulua, gure kexuaren hondo iluna...?" XCIV. salmoko, seguraski gure herriari buruz ari denean. Aipamen hauek guztiak *Zaurien Salmoak*-en olerkariak ohiko duen jarrera pertsonaletik at gelditzen dira, baina esanagatik ere, delako ni sagaratu eta kezkatu horrek, are aipatu kasu hauetan ere, ez dio protagonismoaren ekimenari uko egiten.

Bigarrenik, naturgunea da

Patxiren poema-salmo hauek bitan, hirutan edo are gehiagotan irakurri, aztertu eta birfindu dituen olerkari ezagun batek poema hauei lur usaina dariela gogorazi digu. Egia esan, ez zaio arrazoirik falta. Izan ere, naturgunea -lurreko elementu osagarri guztiak barne- da Patxiri sarritan aipatzea gustatu izan zaion delako "espazio mitiko" horren eremua. Liburuaren egileak hortxe kokatzen ditu maisuki ni-aren bizitza, bizitzaren beraren poza eta nahigabea, ilusioa, desilusioa, izana eta ezizana, sorkuntza, hobekuntza, argitasuna eta iluntasuna, amodioa, etsipena, ametsa eta itxaropena..., etengabe, erritmo bizi eta zehatzean. Hain zuzen, eta harri-garria badirudi ere, delako "espazio mitiko" horretan zauritzen da olerkaria, eta urraduraz betetzen: "Urraturik iritsi zaizkit eguzki oihalak sahas adasken arte-tik...", diosku I. salmoaren hasie-

ran, eta salmo beraren bukaeran are argiago: "Udazkenean argia bezala, urraturik zatozkit eta urraturik doakizu nire izaeraren ispilua..." Hortik, egoera zehatz horretatik, egileak hitz eta oihu egiten du, deiadarraren eta minaren kolore eta soinu gorria barne muinean eta aldi berean lau haizetara aldarrikatuz: "Bizitzaren garaipena da, Jauna, eta borrokari-aren kutsu gorria uzten dit behatzetan," diosku XXII. salmoan.

Hau hala izanik ere, zauri, oihu eta deiadar horiek, edota bizitzaren beste testuinguru horiek, beste kolore mota asko dituzte, ez zauritzen duen gorriarena bakarrik. Olerkariak, ur-jauzien antzera, esaldi sinbolikoak eta "espazio mitikoak" eskaintzen dizkion baliabideak hartu eta egoki iruditzen zaion erara moldatzen dizkigu. Beraz, delako "espazio mitiko" horretan zauria bizitza baita, salmo egilearen bizitzari ukatu ezin zaizkion oinarrizko elementu daude, alegia, bizitzak berak sortarazten dituenak eta gutxi-asko edozein gizakiri dagozkionak. Honela, beraz, esan dezakegu "Zaurien salmoek" :

- Landare berdexkaren kolorea ere badutela (XXII),
- Hodeia urratzen duen eguzkiaren kolorea (XXIII) duten bezalaxe.
- Lila eta ur gaineko nenufaren kolorea ere badutela (XXII),
- Izen bereziek -Maze, Antxomarro, Xiberua, Zuriza- sortarazten dio-

- ten xarmen kolorea (XXII, XXIV, XXVII) duten bezalaxe.
- Lur beltzaranaren kolorea ere badutela (XXV),
 - Ostadar zubiaren kolorea duten bezalaxe (XXVII), edo urrezko eratzunarena (XXVII).
 - Jela urdin eta elur zuriaren kolorea ere badutela (XXVIII),
 - Urrezko aingiraren kolorea (XXXV) duten bezalaxe, edo Orioko barrarena (XXXVI), edo Itacako faroarena (XXXVI).
- Era berean, "Zaurien salmoek" ere badutela:
- Itsas hondoaren kolore grisa (XXXVII).
 - Arrano beltzaren kolorea (XXXVII).
 - Kristoren odolaren eta Jainkoaren minaren kolorea (XXXVIII).
 - Gezi gozagarrien kolorea (XXXIX).
 - Gure azken definizioa izan zen burniaren kolorea (XXXIX).
 - Iraultzaren ezpata gorriaren kolorea (XLVIII).
 - Izabako azken gauaren kolorea (LXII).
 - Alferrikako itxarote luzearen kolorea (LXII).
 - Tunika loratuaren kolorea (LXIII). Inola ere ahanzi gabe, *Zaurien salmoak*-etan:
 - Nakarrezko orrazien (LXX)
 - Eta adar biluztuena bezalako koloreak (LXXII) daudela.
 - Elorriko baia gorrien (LXXIII)
 - Eta bizi zintzoarena bezalako koloreak (LXXIV) daudela.
 - Zauri bizigarrien (LXXVII)

- Eta zero marinelerena bezalako koloreak (LXXIX) daudela.
- Adats horailaren (LXXIX)
- Eta kometa iheslariarena bezalako koloreak (LXXXI) daudela.
- Zintzarri alaien (LXXXIX)
- Eta gau isileko extasiarena bezalako koloreak (XCVII) daudela.

Elementu sinboliko hauen birtartez irudikatzen da naturgu-neak olerkariaren "espazio mitikoari" eskaintzen dion eremua. Jakina, hauek ez dira bakarrak, badira gehiago, hemen aipatu ez arren berebiziko garrantzia dutenak gainera: itsasoa, heriotza, amodioa, txalupa, marinela ... eta abar.

Hirugarrenik, Jainkoa da

Olerkariak edota salmo egileak Jauna, Jainkoa eta Jahweh ditu hizketakide eta solaskide. Hari aurreratzen zaio, hari hurbildu, hari eskatzen dio, hari arazoak aurkeztu. Harengan du itxaropena, harengana doa salbamen eske. Harekin bizi nahi du eta harekiko harremanak estutu. Hartaz gogoratzen da etsipenean, hark eutsiko dio itsasoan txalupa kulunkariak ziurtasuna eskaintzen ez dionean. Hura da morroiaren indar eta zorion ametsa. Poemasalmoak otoitzak direnez gero, otoitz hauek hartzaile bat behar dute eta hori ez da Jainkoa besterik.

Dena den, olerkariak duen Jainkoa ez da gizakiarengandik

urrun, beste planeta batean-edo dagoen norbait. Jainkoa morroia-rekin etengabe eta edozein unetan harremanetan dagoen solaskidea da. Zurikeriarik ez duen elkarriketa jator eta zintzoaren bidez, gizakia eta honek maite duen Jainkoa, aurrez aurre, biluzik biak, morroia zauriz lepo egon arren eta Jainkoa bera gizakiaren ezereza eta leialtasuna gogo onez hartzen duelarik ..., amaierarik ez duen harreman estu eta kontzienteari bide ematen zaio.

Zaurien Salmoak-en dauden otoiitz-salmoetan trilogia honen inguruan eraikitzen da poemaren egitura, hau da: a) Ni-aren inguruan; b) Naturgune-aren inguruan; eta c) Jainko-aren inguruan. Dena den hiru elementu hauek beti edo ia beti agertzen badira ere, ez dira beti tinko eta firmo ezarritako orden bakar eta estatiko batean agertzen. Batzuetan, gehienetan egia esan, niaren arazoaren aurkezpena egiten da, gero poemaren bukaeran Jainkoari laguntza eskatzeko, eskerrak emateko, haren edertasuna kantatzeko eta abar. Egitura xume hau askotan eta askotan otoiitz bihurtzen da. Beste batzuetan, niaren arazoa eta Jainkoarekiko harremana estu-estua da eta solasaldi baten gisan ematen da. Egitura hau salmo askotan ematen ez bada ere, ematen den horietan garrantzia du, bi subjektuen arteko hurbiltasuna adierazten duelako. Hirugarren

egitura-mota ere bada. Honetan salmoa ez da zatitzen eta goitibehiti monologo bihurtzen da LXXXIII. salmoan gertatzen den bezala. Badira gainera laugarren motatako salmo batzuk, non niaren arazoa eskaintzeaz gain, non espazio mitikoaren laudorioa egiteaz gain, non Jainkoaren laguntza eskatzeaz gain, bertsoen artean lelo errepikakor bat - oro har hiruzpalau aldiz esateko tartekatzen dena, niak dituen arazoak behin eta berriro adituak izan daitezten. Halaxe gertatzen da, esaterako, VI, LXXXVIII, XCI, eta LXXII. salmoetan.

Esanak esan, egitura guztietan olerkariaren Jainkoa agertzen da, bai era esplizituan, bai era implizituan.

Jainkorik gabe poema hauek ez lirateke otoiitz izango. Jainkorik gabe olerki hauek Patxiren beste zenbait olerkitan ikusi dugun pentsaera bera ikusiko genuke, eta sakoneko helbururik gabekoak izango lirateke. Nire iritzirako Patxik otoiitzak egin nahi izan ditu, horretarako literaturaz baliatu bada ere.

Gainera, niak dituen arazoei irtenbiderik eman diezaion, lur honetako elementuek ez baitote soluziobide egokirik eskaintzen, halabeharrez Jainko horrengana jotzera beharturik aurkitzen da, eta lortzen du, eta esperantzaz hitz egiten du, eta hil beharraz mintzatzen den bezala, hilezkortasunez gogoratzen da, Unamu-

noren nahiarekin bat egiten duelarik. Dena den, nire ustez legorretakoa hurbilago dago Getsemanin sufritzen duen gizakiarengandik -sinestuna izaki beraur- bilbokoa antsiaz gura duen hilezkortasunetik baino, nahiz eta biak arimaren betiko bakea igurikatzen duten.

3. Zaurien Salmoak-ekin euskal poesia erlijiosoaren gailurra?

Nik ez dut erabat ziurtatuko Patxiren lanari eskaini diodan tituluak hala deitzeko arrazoi sendo eta funtsezkorik ematen duen. Baina bestalde, Legorretakoak eskaini diguna -otoitz salmoak- nahiz eta literatura poetikoaz baliatu poesia erlijiosoa ez bada, zein literatura generotan sartu? Askotxo esatea ez balitz -beti baitago hitzen erlatibizatze-ariketa bat egin beharra- Patxik orain arte poesian eskaini duenaren herena baino gehiago literatura kategoria honetan, alegia, erlijiosoan, sartu beharko litzatekeela berrestuko nuke. Zergatik? Aztertzen ari garen kasuko gizakiaren izaera eta adiurreak bizitzak dituen koordenak ikuspuntu horretatik begiratzera eramaten dituelako eta, honez gainera, munduari buruz, egun, berak gehien estimatzen dituen idazleek bide honetatik -neurri batean zein bestean- abiatu direlako seguraski; baina azken arrazoi hau be-

rak inork baino hobeto argituko liguke.

Orain, preseski, ez da unea euskal poesia erlijioso baten aurrean gaudenentz eztabaidatzeko, nahiz eta nire iduriz, gaiak azterketaren bat edo beste merezi duen.

Gauza da euskal literaturan mota honetako edo antzeko lanak eta egileak betidanik izan ditugula. Batzuk -literaturaren parametroekin neurtuta balio gutxikoak, egia-, baina beste batzuek -gogoan ditut Orixé, Lizardi, Lauxeta, Salvatore Mitxelena, Iratzeder, Xalbador, Bitoriano Gandiaga, J. M. Irigoien, Arze, X. Lete, J. M. Lekuona eta Patxi Ezkiaga bera, noski- egin dituzten lan literarioen balioa aski kontrastatu dago.

Egia da Zaurien Salmoak-en egitura eta tankera bereziak direla eta izena bera ere, berdin. Baina gauza kurioa da eta baita kointzidentea ere, X. Leteren "Zentzu Antzaldatuén Poemategia"-ren hogeigarren orrialdean eta XIV. poemán ondorengo hau irakurtzea : "Psalmok ditut nik barne isilean zuretzako, jauna, psalmok ditut nik...", edo hogeita zazpigarren orrialdean eta XXI. poemán sentipen erlijioso betetako honako hau irakurri ahal izatea: "Zenbat gogoitzen zaitudan, Jauna, otoituz itzul diezadazula behin gorde nuena, gorputz loratu haien fruitua..."

Lehen aipatu idazle erlijiosoen arteko ezberdintasunak logikoak dira, bai norberaren izaeraren aldekitkoak, bai norberari bizitzeari suertatu zitzaion garaien aldetikoak, bai gizaki bakoitzaren sakoneko pentsakeraren rola interpretatze sistemaren aldetikoak ..., eta abar. Denak, ordea, jabeturik daude mundu honetako gizakiak dituen arazoei erantzun bat emateko era asko egon badaudela eta horien artean bat fedearen ikuspuntutik edota gauzen trantsendentziazatik begiratuta arazo horiei irtenbide airoso bat eman dakiekeela. Zer bestela esan nahi du Lauaxetaren "Azken Oihua"-n irakur daitekeenak: "Jauna heriotza, arren, emaidazu ... askatasun doña bial egidazu ... herri askatuen Egun-Handira arte ...?" Edo beste-lako honek: "Kristoren gurutzeaz, beregan itzaroten dut, Jesusen fedea besterik ez daukat ...?"

Baina adibide hauek -eta beste hamaika hona ekar nitzakeenak- ez dute berez egileen idazlanetan "corpus"-ik osatzen eta horregatik ezin dira Patxik idazlan berri honetan eskaini digunarekin erkatu. *Zaurien Salmoak* otoitz liburua den bezala poesia liburua ere bada, beraz euskal literaturaren apaletan tokia merezi duena.

Bukatzeko, Patxiri galdera egingo nioke, alegia, begi-bistan da berak bere arazoen Jainkoarekiko duen atxekimendua, eta atxekimendu hori, beharbada, izan dela barne hustuketa hau egitera bultzatu duena. Baina, Oteiza eskultorearen apostoluak husturik berriro betetzeko prest dauden bezala, zu ere hustu duzun altzo hori betetzeko asmotan al zara? Zerekin? Poesia arloan diot, noski, zeren olerkimota honi gogor eusten diozula baitirudi, ezta?